

## 1.- EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

Ekainaren 7an, Euskal Eskola Publikoaren 18. Jaia ospatuko da, Bergaran. Jaia EHIGE Konfederazioak antolatuko du, eta antolakuntza lanen ardura BAIKARAK eta Bergarako San Martín LHI eta Ipintza BHI ikastetxe publikoetako IGEek izango dute bere gain.

Aurtengo jaiaren bidez, gaur egungo euskal eskola publikoaren kulturartekotasuna azpimarratu nahi da; horretarako, hainbat ekitaldi antolatuko dira jaigunean. Jaiaren inaugurazio ekitaldia goizeko hamaiketan egingo dute, San Martín Eskolako jolastokian, eta, hortik aurrera, askotariko ekintzez gozatzeko aukera izango du adin guztietako jendeak. Informazio honekin batera banatu da jaiko ekintzen berri emateko argitaratutako diptikoaren zirriborroa.

Gipuzkoako ikastetxe publikoetako gurasoei dei egin nahi diegu egun horretan Bergara joan daitezen; jai giroko ekintzez gozatzeko ez ezik, euskal eskola publikoari sostengua emateko hitzordu paregabea baita.

## 2.- IGEentzako 2009-2010 IKASTURTERAKO DIRU LAGUNTZAK

Maiatzaren 12an argitara eman zuten Euskadiko Herri Agintaritzaren Aldizkarian Hezkuntza Sailak 2009-2010 ikasturtean IGEei banatuko dizkien diru laguntzen deialdia arautzen duen agindua.

Eskariak aurkezteko epea maiatzaren 13tik ekainaren 12ra egongo da zabalik, eta garbi ohartarazi dute epe horretatik kanpo erregistratutako eskariak ez dituztela aintzat hartuko. BAIKARAK dagoeneko bidali dizkie IGEei eskaria egiteko bete beharreko inprimakiak, baita aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko jarraibideak ere.

IGE guztiei gogorarazi nahi diegu BAIKARAREN bidez aurkez ditzaketela eskariak Hezkuntza Ordezkaritzan, eta eskatzen dituzten dokumentu batzuk ere federazioak eman ditzakeela (Elkarteen Erregistroko egiaztagiria IFKren kopia...). Hori dela-eta, IGEei gomendatzen diegu ekainaren 2a baino lehen eskariari dagokion dokumentazioa BAIKARARA bidal dezatela, dokumentazioa berraztertu eta, gorabeheraren bat izanez gero, behar bezala konpontzeko denbora edukitzeko. IGERen batek eskaria bere kabuz egitea erabakitzen badu, jakinarazi nahi diogu BAIKARAK dituela Elkarteen Erregistroko egiaztagiriak eta, beraz, Federazioarekin harremanetan jarri beharko dutela, egiaztagiri hori eskuratzeko. Hau da, ez da beharrezkoa IGEak egiaztagiria Elkarteen Erregistroari eskatzea, Federazioari baizik.

Era berean, gogorarazi nahi dugu, datorren ikasturterako diru laguntzen eskariak gainera, IGEek 2008-09 ikasturte honetan izandako gastuen egiaztagiriak bidali behar dituztela Hezkuntza Ordezkaritzara, ekainaren 30a baino lehen; gastu horien zenbatekoak ikasturte honetan jasotako diru laguntzarena adinakoa izan behar du, gutxienez. Gastuen egiaztagiriak jatorrizkoak izan behar dute, eta IGEaren izena eta IFK zenbakia eduki behar dituzte. IGERen batek egiaztagiririk ez badauka, jar dadila BAIKARAREkin harremanetan, baldintza hori nola bete dezakeen azal diezaiogun.

## 3.- PSE ETA PP ALDERDIEN ARTEKO GOBERNU HITZARMENA.

Apirilaren 1ean, Euskadiko Alderdi Sozialistak (PSE) eta Alderdi Popularrak (PP) “Bases para el cambio democrático al servicio de la sociedad vasca” izenburuko hitzarmena sinatu zuten. Akordio horri esker, maiatzaren 5ean Patxi López sozialista izendatu zuten Eusko Legebiltzarreko lehendakari, eta horrek erabateko aldaketa ekarriko du, Eusko Jaurlaritzaren osakerari dagokionez, baita Hezkuntza Sailari dagokionez ere.

Informazio honen xedea ez da hitzarmenaren edukiarri buruzko iritzia ematea, lan hori ez baitagokio Federazioari; hitzarmen horrek hezkuntzari buruz zer dioen jakinarazi nahi diegu IGEei, honako hau, hain zuzen, hitzez hitz:

- *Euskal Eskola Publikoaren legeak, oraindik indarrean, Euskadi Autonomia Erkidegoan, gurasoei onartzen die seme-alaben iraka-hizkuntza- euskara edo gaztelania- aukeratzeko eskubidea, baina, horrez gain, gurasoen aukera ez den beste hizkuntza ikasteko derrigortasuna ere ezartzen du. Beraz, familiek, matrikulatzeko orduan, eskubide hori izango dutela bermatzea.*
- *Hizkuntza politikaren behin-behineko erregulazioa adosteko, hurrengo puntuak hartuko dira kontuan:*
  - a) *Hizkuntza bere artean, hiritarrek hizkuntza aukeratzeko duten askatasuna. Seme-alaben hezkuntzarako duten askatasuna. Seme-alaben hezkuntzarako gurasoek iraka-hizkuntza aukeratzeko duten eskubidearen bermea.*
  - b) *Hezkuntzan, hiritarrek aukeratu ez duten beste hizkuntza ofiziala ikasteko derrigortasuna.*
  - c) *Europako beste hizkuntza bat, aukeran ingelesa, ikasteko derrigortasuna, belaunaldi berrien mugikortasuna, European zein munduan, mesederako.*
- *Helburua elebitasun integraziailea lortzea da, horretarako ofizialak diren iraka-hizkuntza bien erabilera indartuko da, baita bien ezagutza ere; hori guztia familiek iraka-hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea errespetatuta zein hezkuntzako profesionalen irizpidea errespetatu.*
- *Hirueletasunean (euskara, gaztelania, ingelesa) aurrera egiteko kontsentsua bilatuko dugu, hezkuntza zentroek duten autonomia errespetatuta eta familien eta hezkuntzako profesionalen laguntza izanda.*
- *Oinarrizko hezkuntzako kurrikuluan eta haur eta lehen hezkuntzako kurrikuluan dauden hizkuntzen inguruko dekretu desberdinen artikuluen berehalako indargabetzea, eskola publikoaren Legea betetzen ez dutelako eta hizkuntza politikan behar diren kontsentsuetatik kanpora Portu direlako.*
- *Euskal eskola publikoa indartzea. Askatasunean eta askatasunerako heziketa, elkarbizitzarako eta berdintasunean, balore demokratikoen eta instituzioen errespetutik. Horiek guztiak kontuan hartuta, hezkuntza azpiegiturak eta kalitatea hobetzeko baliabideak eta medioak eskainiko dituen plana burutzea.*
- *Irakaskuntzaren askatasunaren defentsa. Irizpideak eta helburuak finkatu fondo publikoekin ordainduko den finantziazioa lortu ahal izateko, pribilegioekin eta diskrimazioekin amaitzeko eta denen berdintasuna bermatzeko,*
- *Unibertsitateen eta Lanbide Heziketaren finantziazio publikoa indartzeko jarduera-programak, kalitatea bermatuz eta ikasleak lan-munduan sartzeari ahalbideratuko duten lankidetzak indartuz.*
- *Hezkuntza saileko diru-laguntzen politika Euskadi Autonomia Erkidegoko erakundeetara mugatuko da eta hezkuntza politikaren sustapen premiak izango ditu kontuan.*

Inolako kritika ez negatibo ez positiborik egiteko asmorik gabe, hitz horiek irakurrita aise ondoriozta daiteke datozen hilabeteetan hainbat aldaketa gerta litezkeela aurreko Hezkuntza Sailak onartutako araudietan, adibidez, curriculum ofizialetan, eta euskal hezkuntza sisteman irakaskuntza hizkuntza bakarra euskara izango zela ziotenetan. Seguru asko, bertan behera geldituko da Hezkuntza Sailak hizkuntzen ikaskuntza markoari buruz (hizkuntza ereduei buruz) egindako proposamena ere, azkenean Eusko Legebiltzarraren onespina jaso gabe gelditu baitzen. Bestalde, azpimarratu egin nahi dugu euskal eskola publikoa sustatzeari egiten zaion aipua, baita hezkuntza azpiegiturak eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko bitartekoak eta baliabideak eskainiko dituen plan bat prestatzearen premiari buruzkoa ere.

Eusko Jaurlaritzaren organigrama berriari dagokionez, dagoeneko jakinarazi dituzte Hezkuntza Saileko kargu nagusietarako izendatuko dituzten zenbait kideren izenak: Isabel Celaá (Sailburu berria), Marian Ozkariz (Hezkuntza sailburuordea), Marisol Esteban (Hezkuntza Administrazioa) , Pedro Luis Arias (Unibertsitateak), David Urzainki (Lanbide Heziketa), Javier Nogales (Kabineteko Zuzendaria). Datozen egunetan emango dituzte gainerako zuzendaritza karguetarako hautatutako izena (Ikastetxeen Zuzendaritza, Berrikuntza arduraduna, Hezkuntzako Lurralde Ordezkariek...)

## 4- ESKOLA JANGELAK.

Ikasturtean zehar, EHIGE Konfederazioan eskola jangelen egoeraz eztabaida egin dugu; horretarako, zenbait batzorde eratu ziren, autonomia erkidego hiru lurraldeetako IGEetako kideek osatuak. Batzordeek dagoeneko ia amaituta dute beren lana; Hezkuntza Sailari helarazi beharreko ondorioak onartzea besterik ez da gelditzen. Ondorioetan, gaur egungo jangelen agindua, jangelen funtzionamendua, janariaren kalitatea, jangelak hezkuntza gune gisa duen egitekoa, jangelako arduradunen irudia, jangeletako langileria eta abar aipatuko dira.

Baina aipatu beharra dago jangelen gaineko eztabaida honetan eragina izan duela, azken asteetan, eskola jangeletan jana bantatzen duten enpresek kontratatutako langileek antolatutako grebak direla-eta. Greba egin zuten apirilaren 21ean eta 23an, eta ikastetxeetako antolaketan gorabehera handiak eragin ditu neurri horrek. Grebarako deia egin zuten sindikatuak, grebaren emaitza aztertu eta Eusko Jaurlaritzak eta enpresek inolako erantzunik eman ez dutela ikusirik, mobilizazioak egiten jarraituko dutela jakinarazi dute, eta datorren Maiatzak 28an eta ekainak 2 eta 4an greba egiteko beste deialdi bat egin dute sindikatuak.

Laburbilduta, honako hauek dira kolektibo horren aldarrikapenak:

- Jardunaldia luzatzea (ikastetxeen nahiz familien eskariari erantzuteko)
- Formazio ikastaroak (gure taldearen profesionaltasunaren hobekuntza etengabeko)
- Ratioak berrikustea (kalitatezko zerbitzua emateko, haurrak ez direlako zenbaki hutsak)
- Lan baldintzak (egunero geure gain dugun erantzukizuna kontuan hartuta, zilegi delako lan eta gizarte baldintzak hobetzea)

Greba egunetan gertatutakoa ikusita, eta aurrerago greba gehiago izan daitezkeelakoan, SAREAN eta BIHE zuzendari elkarteek eta autonomia erkidegoko IGEen federazioek (BIGE, DENON ESKOLA eta BAIKARA) zenbait ekimen bateratu gauzatzea erabaki dugu, mobilizazio horiek ikastetxeetako jarduera arruntean izan ditzaketan ondorio negatiboak ahal den neurrian arintzeko. Horretarako, gutuna igorri diogu Hezkuntza Sailari, greba luza eza dadin ahal den guztia egin dezan. Era berean, idatziak bidali dira ikastetxe guztietara, Eskola Kontseiluei honako proposamen hau egiteko: akordio batzuk egitea, egoera bideratzeko eta Hezkuntza Sailari berehala irtenbideak aurki ditzan eskatzeko. Idatzi horien kopiak banatu dira.

## 5- INTERESEKO BESTE GAI BATZUK.

### 5.1 Eskola mapa.

Otsailaren 12an eman zuten argitara EHAAn 2009/21 Dekretua, EAEko irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe sarearen antolaketa eta plangintzarako irizpideak (eskola mapa berria izenez ezagunagoa) ezartzen dituen. Argitalpenaren ondorengo urratsa hezkuntza komunitateari eskola mapa berria hiru lurraldeetako hezkuntza barrutietan ezartzeko proposamenak aurkeztea da. Proposamenak martxoan jaso behar genituen, aurreikusitakoaren arabera, baina azkenean ez zen halakorik gertatu. Eskola mapa berriaren ezarpena, beraz, Hezkuntza Sail berriko arduradunen esku geldituko da. Hala ere, oraindik ez dago oso argi onartutako irizpideak ezarriko dituzten, dekretu horren edukia kontrako helegitea jarri baitute zenbait sindikatuk (CCOO, STEE-EILAS). Helegitearen argudio nagusia hau da: dekretu berria ez datorrela Euskal Eskola Publikoaren Legearekin bat, hau da baitio lege horrek 9.1. artikuluan, hitzez hitz: *“Herri agintek, euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeen bitartez, unibertsitatekoaz kanpoko irakaskuntza orokorreko maila guztietan, 3 urtetik aurrerakoentzat doako eskolatzea bermatuko dute”*. Dekretu berriak, 5.2. artikuluan, legezko arau hori ordezkatu nahi du, konpromiso hori ondoren adierazten den moduan lausoago adierazteko: *“haur guztientzat eskola plaza bat bermatuko dute, funts publikoetan oinarrituriko ikastetxe batean, bere etxetik hurbil, nahitaezko etapa bakoitzean”*. Ez da gauza bera doako eskolatzea euskal eskola publikoa osatzen

duten ikastetxeen bitartez bermatzea eta funts publikoetan oinarrituriko ikastetxeen bitartez bermatzea, ikastetxe pribatu itunduak adierazteko beste era bat besterik ez baita hori.

Azken batean, araudi berriak administrazioaren hezkuntza eskaintza arautzen du, eta eskola publikoak ez ezik, ikastetxe itunduak ere kontuan hartzen ditu; eskola publikoan eskaintzen diren plazak betetakoan, ikastetxe pribatu itunduetara bideratuko dituzte gainerako ikasleak.

Helegiteak tramitera onartu ditu Euskadiko Auzitegi Gorenak, eta dekretu horrek gaur egun indarrean dagoen araudia urratzen ote duen aztertu beharko du, orain.

## **5.2 Testu liburuak.**

Testu liburuen mailegurako programaren aplikazioa dela-eta, oraingoz ez dago inolako berrikuntzarik; hortaz, programa hori ezartzeko egutegiari jarraituz, 09-10 ikasturtean Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ezarri beharko lukete. Edonola ere, adi egon beharko dugu Hezkuntza Saileko arduradun berriek programa orain arteko moduan aplikatzen duten edo ez ikusteko.

## **5.3 Zuzendariak hautatzea.**

Azken asteetan ikastetxeetako zuzendari berriak hautatzeko prozesua gauzatu da. Hautaketa prozesuan txertatutako aldaketak gorabehera, irakasleek ez dute inolako interesik izaten zuzendaritzako karguak beren borondatez hartzeko. Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, ikastetxe eta institutuen % 35ean besterik ez dira hautagaiak aurkeztu zuzendaritzarako. Ikastetxe horietan, hautatutako pertsonak lau urtez jardun beharko dute zuzendaritzan.

Beste % 65etan, hautagairik ez zegoenez, Ikuskaritzak proposatuko dio Hezkuntza Ordezkaritzari klaustroko irakasle batzuk izendatzeko. Sistema horren bidez aukeratutako pertsonak urtebetez jardun beharko dute esleitzen dieten karguan. Berrito ere irakasle hautagairik aurkeztuko ez balitz, Ikuskaritzak berrito izendatuko ditu zuzendariak, baina, oraingoan, hiru urtez bete beharko dute beren kargua aukeratutako irakasleek.

## **5.4 . Ikastetxeetako Antolaketa eta Jarduera Araudi berria onartzea (AJA).**

Ikasleen betebeharrak eta eskubideen dekretu berria indarrean sartzearekin batera, ikastetxe guztietako araudia aldatu beharko da, dekretu berriaren edukiak dioena biltzeko. Berez, eta dekretuak berak dioenez, dekretu berria argitaratu zutenetik sei hilabetezko epea zegoen araudia egokitzeko. Dekretua abenduaren 12an argitaratu zutenetik, teoriarik, Eskola Kontseiluek 2009ko ekainaren erdialderako prest eduki beharko lukete AJA. Azken hilabeteotan, behin eta berriz eskatu diogu Hezkuntza Sailari ikastetxeetara AJA eredu berria bidaltzeko, baita Bizikidetzaren Plana ezarriko dela bermatzeko ere.

Apirilaren amaieran jaso dute eredu ikastetxeetako zuzendaritzek eta, beraz, maiatzaren eta ekainaren AJA berriaren proposamenaren gaineko eztabaida egin beharko dute ikastetxeetako hezkuntza komunitateek, eta Eskola Kontseiluek ekainaren erdialderako eman beharko diote behin betiko onespina.

Denbora gutxi dugun arren, BAIKARAK ahalegin berezia egingo du IGEEi AJA berria eztabaidatzeko eta onartzeko jarraibide batzuk emateko. Edonola ere, ikastetxeren batean eztabaida egiten hasita badaude eta IGEEak gai honi buruzko aholkularitza behar badu, Federazioarekin harremanetan jar daiteke.